



Astebetez, festen hiriburu

TOLOSA ▶ Ehunka lagun hurbildu ziren Plaza Zaharrera aurtengo Inauteriei ongiatorria ematera giro alaiean

PREGOIA ▶ Jubilatuentzat Disneylandia modukoa antolatzea eta txuletoiaren festa izan zuten hizpide Kabi-Alai elkartekoek ▶ 2-6



Tolosa. Ehunka lagun bildu ziren Alde Zaharrean Inauteriei ongiatorria emateko. I. TERRADILLOS

TOLOSA ▶

Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdia abiarazi dute

Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatuta saio bat egingo du Tolosan ▶ 7

LEITZA ▶

Rekondok finalerdia jokatu du Amazabalen

Etzi izango du Ander Erasunekin batera ▶ 7

ZABALA

KAFETAK

**ONDO PASA
INAUTERIEGAN!**

Nafarroa etorbidea, 2 **TOLOSA**
Nagusi enparantza, 2 **ORDIZIA**

Tlf.: 943 65 47 95
Tlf.: 943 88 29 88



‘Bi ahizpa potxolak’, Jose Ramon eta Xabier Garikano

ATZERA BEGIRA ▶ Badira urte batzuk Garikano anaiak urtero-urtero inauterietarako mozorroa prestatzen dutela. Argazki hau utzi digu Xabier Garikanok, bere bizitzeko inauterietako albumetik ateratakoa. «Anaia Jose Ramon eta biok

azaltzen gara argazki zahar honetan», azaltzen du Xabier Garikanok. *‘Bi ahizpa potxolak’* bezala bataiatu du argazkia. Inauterietako argazkiak «biziki maite dituela» azaldu du Garikanok, bide batez. HITZA

XABIER TELLERIA ▶ INAUTERIZALEA

«Nire ustez inauteri guztiek dute kabida Tolosakoetan»

Naiara Garzia. Xabier Telleriak (Tolosa, 1960) 47 urte izan arren, oraingo parte-hartze moduak eta bere garaikoak oso ezberdinak direla uste du eta askotan mozorroa bera ona eta txarra izan baino mozorro horrekin nola pasatu duzun garrantzitsuagoa dela dio. **Zer dira Tolosako inauteriak zuretzat?**

Ondo pasatzeko modu bat. Honetaz gain norberaren tensioen deskarga izan daiteke, norberaren konplexu eta hutsuneen astintzea, harremanetarako bide bat... Bakoitzak nahi duena. Baina batez ere ondo pasatzeko parte bat.

Nola hasi zinen inauterietan parte hartzen?

Nire kabuz. Gure etxean behintzat ez zen horrenbeste bultzatzen haurra festara. Eta gure garaian eskolan ez ginen enterratu ere egiten inauteriak bazetozenik. Orain ikastetxeetan mozorroak egiten dituzte, abestiak ikasten dituzte... Orduan ez zen horrelakorik. Gure belaunaldian barraketara etor-

tzen hasi ginen, amari txilaba bat erostarazten genion eta horrela hasi ginen.

Inauterietan ongi pasatzeko modu asko daude. Zuk zein duzu gustukoena?

Lagunartean konpartsan ateratzea, aukera izanez gero, behintzat. Lagun arteko giro hori, festan parte-hartze zuzen hori.

Konpartsan urtero-urtero ateratzen diren horietakoa al zara?

Bai, baina obligaziorik gabe. Ez dut nik pentsatzen tolosarra izateko nahitaz hortik pasa behar denik. Bakoitzak bere festa nahi duen bezala antolatzen du, inauteriak eskaintzen dituen aukera horien barruan bakoitzak berari ondoen datorkiona aukeratuz. Eta ulertzen dut ere batzuk ikusle soil hutsa bezala egotea, inauteriek hori ere behar baitute, bestela ez ginen kale erdian sartuko. Ez badago inor begiratuko duenik ere, ez dakit festak zentzu gehiegi izan-gotzeko.



Xabier Telleria (erdian), bi lagunekin. HITZA

TRAGO BATEAN ▶

Egunik onena? Onena Ostegun Gizen, lehenengoa delako eta aldrebesena Zaldunita.

Gaua ala eguna? Orain, halabeharrez, egunez.

Festa bat? Arratsaldeko 16:00etako txaranga igogera.

Hauster Eguna. Errekupe-ratzeko egun bat da, inauterietako trasteak biltzeko eguna.

Nola asetzen duzu sabela? Lagunak eta familia elkartean biltzen gara.

Nola deskribituko zenizkioke Tolosako inauteriak kanpotar bati?

Tolosako inauteriek zenbait kasutan Zubietakoan antza izan dezakete, lau trapurekin nahikoa da, eta beste zenbaitean, berriz, Tenerifekoena: diru pila bat gastatu... Nire ustez inauteri guztiek dute kabida Tolosakoetan.

Jantzi dituzun mozorro guztietatik zein duzu bereziki gogoa?

Gaztetan zanpantzar berezi xamarraz atera ginen, zintzarriak izan beharrean, pixontziak geneuzkan. Eta zaldiaren isipua-oren ordez, komunekoak.

KANTAK ▶

Hona hemen Ero-Etxe txarangaren diskoan azaltzen diren bi abesti:

‘BAILA NEGRA’

*Mugi, mugi gorputz hori
Gogotsu
Zure dantzak
Jartzen nau dantzan
Berdin zait gorria izan,
Horia, zuria edo beltzarana*

*Dantzan hasitakoan (bis)
Nahiz eta gorriak ikusi
Ez gara gorritzen
Txantxo aspian.*

Xabier Telleria

‘ZE POLITAK DIRAN’

*Ze politik diran
Loreak zelaian
Ze politik diran
Txarriak kaiolian
Ze politik diran
Hemengo neskatilak
Zahartzen diranean
Esaten dute
Mutirik nahi
Ta mutirik ez.*

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))
Osasuna.**

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarain autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320



HAUR JAIALDIAK ▶

Eskualdeko haurrak inauterietan

Inauterietako lehen egunean, haurrak mozorroturik atera ziren kalera

ASIER IMAZ - ESTI EZEIZA

Tolosako inauterien hasiera eskualdeko ikastetxe guztietan ospatu zuten kolorez beteriko ostegun gizenean. Musika doinu, dantza, eta txistorrik ez zen falta izan inon. Mozorroak ere modu guztietakoak; indioak, buruhaundiak, pailazoak... hori bai, beti ere haurrek ikastetxetean eginikoak.

Haurrez gain, irakasle eta gurasoek ere jaietan parte hartzeko aukera izan zuten txikien modura. Protagonistak or-

dea, haurrak izan ziren; goizez nahiz arratsaldez aurreko aste-etan prestatutako dantza, antzerki eta kantuen emanaldiak eskaini bait zituzten han eta hemen. Eguraldia ere udaberriko eguzkiz mozorroturik lagun izan zuten, jai giroa goxatzera joan zitzaielarik.

Gaur inauteriek jarraipena izango dute, bai Tolosa eta bai inguruko hainbat herrietan. Zizurkilan, atzo argitaratutakoa zuzenduz, gaur 15:00etan egingo dute kalejira eta Joxe Arregi plazako emanaldia.



Tolosa. Inauteriak behar bezala hasteko, jaialdi handi bat egin zuten atzo Laskorain ikastolakoek. Hori dela eta, aurten ipuin klasikoan inguruan murgildu ziren, eta esaterako Hiru Txerriboez, Pabxi errementariak, Harriketarrez eta beste hainbat ipuinetako pertsonaiez mozorrotu ziren. HITZA



Ibarra. Goiz-goizetik hasi ziren festarekin Uzturpen. Gelaz gela argazkia atera ondoren, herriko plazara jeitsi ziren. Bertan, buruhaundiak, musika eta txistorra izan zituzten gerturatu ziren guztiak. Haurrak bezala irakasleak ere mozorrotu ziren. A. IMAZ



Berastegi. Astelehenean, Muñagorri eskolako 104 ikasleek energia iturri berriztagarriak gaia erabili zuten mozorrotzeko hizpide: itsaso, eguzkia, haize eta uraz jantzi ziren, kaleak kolorez beteaz. HITZA



Albiztur. Indioz mozorrotu ziren atzo gazteak. Atzean etxebtoa zutela, irakasleen laguntzarekin, dantza bezei bat eskaini zieten hara gerturatutako gurasoei. E. EZEIZA




Villabona. Arratsaldeko hiruretan, Errebote plazan elkartu ziren herriko haurrak. Erle mozorroak, Txantxoeren jantziak, Charleston garaikoak eta *Mari Motots* ugari elkartu ziren bertan. Hainbat gurasok ere ikuskizuna erretratatu nahi izan zuten bere argazki eta bideo kamerekin. Ondoren kalejira egin zuten herritik. A.I.



Anoeta-Irura. Ederki gozatu eta nahiko barre egin zuten Anoetako Herri Ikastolako eta Irurako Ikastolako ikasleek Inauteri Jaialdirako prestatutako esketx barregarriekin. HITZA



TXUPINAZOA ▶



Txupinazoa, Kabi-Alai elkarteak korporazioa, pregoian, I. TERRADILLOS



Txarangen doinuak, Otegun Gizon kartuarekin hasi ziren txupinazoa bota ondoren, I. T.



OpaKizuna, Txanpainarekin ospatu zuten batzuk, jaiaren hasiera, I. T.



Galtaundi, Begi-bista, I. T.



Txosnagunea, Eguerdi aldean ekin zieten jaiari, I. T.



Gora Tolosako Inauteriak!

Jende ugari bildu zen Plaza Zaharrean; Kabi-Alai korporazioak ohiko pregoia irakurri zuten, eta txupinazoa jaurtitzearekin batera lehertu zen jai. Txosnagunean ere festa alternatiboari ekin zioten

N. GARZIA - I. TERRADILLOS

Azkenean iritsi dira hainbeste txaron ditugun Inauteriak. Garaz iritsi dira aurtengoa ere, izan ere, Kabi-Alai elkarteak eguerdiko 10 minutu falta zirenean pregoiarekin ari ziren dagoeneko Ordurako eguraldi ona lagun, etnika lagun bilduak ziren udalereko egoitza dagoen Plaza Zaharrean.

Eta Plaza Zaharraz gain, Zerkausia nahiz Nafarroako zubia jendez lepo zegoen pregoiarekin hasiak zirenerako Herritarrek gogotsu, festarako grinez ageri ziren. Eta festaren hasiera ez zen gehiegi luzatu, pregoiarekin amatu bezain laster lehertu baitzen jai. Tolosako kaleetan, Aurretik, ordea, festari hasiera emateko txupinazoa erantzun beharra zegoen. Jubituentzako Disneylandia moduko bat eratzea izan zen pregoian proposatzen zuten ideietako bat; besteak, gaur egunentzat berrikuntza bezala aurtengo Diskojoia antolatzea aipatu zuten, eta «Gora Tolosako Inauteriak» oihu egin ondoren bota zuten jaiaren hasiera iragaritzen zuten txupinazoa. Une horretan lehertu zen jai. Plaza Zaharrean, eta txarangen doinuak batera herriarrik dantzatzen eta salkoka hasi ziren.

Plaza Zaharretik Txangulora luzatu zen ondorena jai, bertan izan baitzen aurtengo berrikuntzetako bat. Beste urtetan Galtaundi, Inauterietako Iturrira, Zalduneta Beperako Danborradarekin batera iritxen ziren, baina aurten, jai batzordeak hala erabakitzen pregoia amatzearekin batera ikusi du argia Galtaundi, Inauterietako Iturrira festan murgildua zegoenerako herritar guztiak ere jai giroaz ari ziren gozatzeko. Txistora pintxo gozo eskopak ere dastatzeko aukera izan zuten tabernetara joan zirenek, denetan eskaini baitzuten Otegun Gizoneko jai pregoia.

Eta egun honetan ohiko ez bada ere, jende ugari moztortuta ikusi ahal izan zen. Askok ikasituek gazteok edota irakasleak ziren atzoko eta gaurko egunerak jaiakidatzen baitzuten; baina, beste asko atzoko egunerak moztortzen delakoan moztortu ziren.

Bestealde, Abongegian diago kokatuta aurreko txosnagunea, eta eguerdikako bertan ere hasia zegoen festa giroa. Hala, 12:30ean bota zuten txupinazoa eta horrekin batera ekin zieten Inauterietako egitarari. Atzokoan, txistorra jaiak eta txarangen doinuak izan ziren txosnagunean, eta gaurkoan, arratsaldetik festa giroak eta musika irango dira, besteak beste.

Hasi dira urteko festarik zoroenak, eta adin guztietakoek izango dute aukera Asteartita bitarte primeran igarotzeko.

Batzuk bezperatik jai giroan
Urtero urtero, gero eta gehiago izaten dira Inauteriak Otegun Gizonen hasi ordez, aurreko egunean hasten dituztenak. Ez dakigu Inauteri gogoz daudelako edota festarako irrika berezia dutelako baina egitarari ofizialetik at, asteazkenetik asteartera irauten dute hasieratzen Inauteriak. Vista Alegre txarangoak izaten dira egun horretan giroa alaitzeaz, afora egoteaz eta txupinazoa botatzeaz arduratzen direnak. Gero, noaki, berak bezala, gainerako herritarrek ere elkartzen dira gaueko parrandian.

Jubilatuentzako Disneylandia, pregoian

Erredakzioa • Kabi-Alai elkarteak txupinazoa udal korporazioak, 11:45ak aldera pregoia irakurtzeari ekin zion, Plaza Zaharra jendez gainezka zegoen bitartean. Negu batean egon arren, eguraldiak ere ederki lagundu zuen. Pregoa aurrean euskaraz irakurri zuten eta gero, erdaraz. Hitz hauek izan ziren, hain zuzen ere, pregoiarekin erabiltzekoak.
«Tolosar mitatek, hemen zaudetena eta falta direnak, aurrean bertan ere gure promesak aurkitzen etorri gara, aurreko urtetan bezala urtean zehar beteiko ditugunak. Tolosako jubilatuak aldetik jasotzeko kezak eta gero, zaharrentzako egotza urtean zehar egiten diren ekitaldi ugartekin (abesbatzak, txontxongiloak...) bete egiten dituzten, gure herriko jubilatuak alde batera utzi, korporazio honek jubilatuentzako Disneylandia moduko bat antolatzea erabaki du. Abastoa plazan.

Jubilatu marxosoenak herri-jasotze saioak egin ahal izango dituzte, enborrak moztu, zesta puntan ibili, bolo-jokoa, remoa, panak audimosa, eskalada, judoa, karatea, boxeoa, arku-tiroa, izotzaren gainerako patinajea eta urpeko igeriketa.

Jubilatu lasaienek, berriz, partixean jokatzeko aukera izanen dute, musean, tuteran, sukaldaritza ikastaroak egin ahal izango dituzte, eta Txu-Txu trenan ibili.

Jubilatu guztientzat ikurragarri izanen dira igerileku klimatizatuak, bainu turkoak, Thailandiako masajeak, eta

Birmanikoak, yoga, sauna, eta asbesturietan pilates metodorekin gozatzeko aukera izanen dute.
Asteburu guztiaren rock and roll eta heavy metal kontzertuekin gozatu ahaliko dute. Jubilatuetan pentasetzean, gazteek ere arduratzen gara. Herri-egitatek, herri honetako gazteentzako gaurtik Asteartita bitarte Diskojoia delako antolatu du, 22:00etik 05:00etara. Diskojoia ondorengo lekuetan izanen da: Berazubiko futbol zelaia, zesen-plaza, frontoia, Trianagunea, Zerkausia, Euskal Herria plaza, Berdura plaza, plaza Berria, Urture eta Ernio Eguren MPKk telefono mugikorrak, Ipoda-ak eta Play Station-ak zozketatuko dira.
Tolosako biztanlegoaren

zati batek azalduko lehen ondorioz, trulutoiaren jaiak gozatzeko lekuek ez diegola eta, korporazio honek Alboradako ohiko gailera eta anis trulutoiak trulutoiaren ordekatzea erabaki du. Beraz, Alboradan udalereko arkupeetan trulutoi taloak, piperrak, kubiak, tejak eta zigarrak dohainik banatuko dira. Gainera, Gorrotxategi Gotozategi ardo eta txanpainaren barralibrea izanen da.
Eta amatzeak, inolaz ere herriko ez den neurri bat hartu dugula jakinarazi nahi ditugu. Aurten Solana kaleko bizilagun bakoitzak 300 euroko zerga berez bat ordaindu behar du, urte osan zehar trulutoia usaitzeaz lepo jarri baitira, eta guri hori, euro bat ere ordaindu gabe! *

PILOTA PARTIDUAK

Otsailak 18 • Igandea • 17:00
Agirre - Begino / Chafee - Nalda III

OLAIZOLA II - OTXANDORENA GONZALEZ - PASCUAL

Albizu - Rai / Del Rey - Apeztegia

Otsailak 19 • Astelehena • 16:30
Galarza V - Elkoro / Berasaluz IX - Galarza VI

MTZ. DE URUJO - ZUBIETA TITIN III - LASA III

Balestena - Urberuaga / Apeztegia - Aukxin
Tolosako Beotibar pilotalekuan



TOLOSA ▶ OSTIRAL MEHEKO DANBORRADA

Berreskuratzeko gogoz

Ostiral Meheko danborrada berriro igaroko da gaur Alde Zaharreko kaleetatik, 25. emanaldia betez

IMANOL GARCIA

Herri honetan mahaiaren inguruan egitasmo ugari jartzen dira abian. Herri honetan ere zirikengatik jartzen dira mar-txan hainbat ekimen. Horrela sortu zen Ostiral Meheko danborrada egiteko asmoa. 1983. urtea zen eta ez zen asko falta Inauterietarako. Aurrera elkar-tean senar-emazte talde bat afaltzen ari zen eta Inauterietaz hitz egiten, tartean elkarre horrek Ostegun Gizenean ateratzen duen danborradaz. Hala-ko batean, senarretako batek emazteei enbidoa jota zien: «Ezetz zuek horrelako zerbait antolatu?». Eta emakume horiek enbidoa jaso eta ordagoa jota zuten.

Mertxe Iturralde eta Begoña Buitrago dira Ostiral Meheko danborrada bultzatu zuteneko bi lagun. Aurrera elkarteko afa-ri hartan zegoen Iturralde: «Emakume gehiago topatzen hasi ginen danborradan parte hartzeak. Orduan, emakume asko joskintza tailerretara joa-ten ziren eta horrelakoetan za- baldu genuen gonbitea».

Lehen urte hartako presta- ketak egiteko Aurrera elkar-tekoen laguntza jaso zuten. «Danborrak eta aurreko man- talak utzi zikiguten eta ibilbide- an zehar lagundu. Gerora ere asko lagundu digute», azaltzen du Buitragok. Aurrerakoez gain, aipamen berezia behar dutenak musikariak eta Joa- quin Garmendia anoetarra da. Karroza ateratzen hasi zirene- an, azken honek laguntzen zien traktorearekin. «Musikari asko Aurrera elkartekoak ziren. Se-



1983. urtean atera zen konpainiaren zenbait partaide. HITZA

narrak, seme-alabak, lagu- nak... animatu ziren parte har- tzeza», dio Iturraldek. Mila Itu- rrospek zuzendu zituen musi- kariak eta aurten ere egingo du.

Lehenengo urtean bezala

Hain zuzen, gaurkoa 25. dan- borrada dela-eta aterako dira berriro. Egia esan, azken urte- tan ez dira atera, azkena 2000. urtean izan baitzen. Motibazioa jaitsi egin zen eta horregatik utzi zioten ateratzeari. Gero danbor-jole batzuk larunbate- ko danborradan hasi ziren ate- ratzen. Aurten, hain justu, gaurkoa eta biharkoan atera- ko diren ere badago. Buitra- go eta Iturrospe izan dira aur- tenguaren dinamizatzaileak.

Lehenengo urtean, 25 lagun inguruk hartu zuten parte, kon- painia bat osatuz. «Ondo atera- ko zen», dio Iturraldek, «hu- rrengo urtean bi konpainia ate- ra baitziren». Danborrada beti Aurrera elkartetik atera da eta gaur ere hala egingo dute, 20:30ean. Lehenengo urtean bezala, aurten ere konpainia bakarra aterako da eta karro- zarik gabe.

Karrozaren kontua gerora sortu zen. Urteetan zehar beti mantendu da danbor eta kupel kopurua, bi konpainia eginez. Karrozak urtero berritzen zi- tuzten eta bertan parte hartzen zuten danbor-joleen seme-ala- bek. «El Kilo dendako jabeak bi bizikleta handi utzi zikigun, aspaldiko garaietakoak, eta horiek zabaltzen genuen ibil-



Mertxe Iturralde, zuzendariz jantzia, 1983ko danborradan. HITZA

bidea», dio Buitragok eta gai- neratu: «Mailuekin-eta ez gi- nen ondo konpontzen eta Fe- rrialekuan denek botatzen zigu- ten esku bat karrozak egiteko, bai senarrek, bai bertan karro- zak egiten ari zirenek ere».

Gutzira zortzi abesti inguru jotzen dituzte, tartean *Ostiral Mehe* izenekoa, danborrada honetan bakarrik jotzen dena. Ibilbidea Alde Zaharreko kale- etatik egiten dute. Berdura Pla- zan geldialdi bat egiten dute eta bertan abesti batzuk jotzen dituzte. Ibilbidean zehar, «ze- bait tabernetan eta elkar-teetan ere zerbait edateko eta jateko ematen digute, eta eskertzekoa da», dio Buitragok.

Ostiral Mehean ateratezare- na, egun honetan «ia ezer ez zegoelako» izan zen. «Hasie-

ran, gure danborrada arte ez zegoen egun guztian beste eki- taldirik», gogoratzen du Bui- tragok. Gero zezanak jarri zi- tuzten arratsaldean eta gauean ere txaranga jarri zuten egita- rauan. Horren aurretik, baina, Ostiral Meheko gauean kalean zegoen musika danborradako musikariek jartzen zuten. «Afaldu ondoren danborradan parte hartutako musikariek txaranga modukoa egiten ge- nuen eta jende asko etortzen zen gurekin», azaltzen du Itu- rraldek.

Gaurkoa berriro egingo dute danborrada eta aurreran- tzean ere ekitaldiak jarraituko duela espero dute. «Guk jarrai- tzen ez badugu ere, gutxienez beste batzuk animatzen saiatu- ko gara», diote bi partaideek.

MERTXE ITURRALDE ▶ OSTIRAL MEHEKO DANBORRADAREN ZUZENDARIA

«Berriro atera behar ginela jakitean, jendea poztu egin da»

Ostiral Meheko danborradaren lehen zuzendaria Mertxe Itu- rralde (Tolosa, 1983) izan zen eta aurtengoan ere bera atera- ko da zuzendari.

Nola sortu zen zuzendari izatearena?

Aurrerak Ostegun Gizenean ateratzen duen danborradako zuzendariak esan zidan ea ani-

matzen nintzen, berak eraku- tsiko zidala. Gero, hurrengo ur- tean, haurdun nengoan eta ez nintzen atera. Hortik aurrera ere zuzendari jardun nuen.

Ardura handia izango zen le- hen urte horretan.

Ez dut gutziz gogoratzen, bai- na seguru urduri egongo nin- tze. Taldean prest jartzen za-

renean eta lehen musika notak entzutean nerbioak dantzan jartzen dira.

Eta lehen entseguak egiteko nola moldatu zineten?


Ostegun Gizeneko zuzendariak lagundu zigon. Hark bestei erakutsi zien danborra jotzen eta niri zuzentzen. Oargin egin genituen lehen urteko entse- guak, kasete batekin. Entsegu berezi xamarrak ere egin ditu- gu. Ferrialekuan kotxe baten ar- giekin eta bere musika apar- agailuarekin, esaterako. Abes- ten genuen bitartean ere entseguak egin ditugu. San Bernardo eskaut taldekoek bere egoitza urte askotan utzi zituzten ere.



I. GARCIA

Lehenengo urtean nola begi- ratzen zizuen jendeak.

«Nora doaz hauek? Zer da hau?» galdetzen zuten, baina egia esan, beti izan dugu jen- dearen babesa. Berdura pla- zan gu noiz azaldu zain egoten zen jendea. Oso oroitza- pen onak ditut. Aurten ere, jakin de- nean atera behar ginela, jen- dea poztu egin da. ◀



Salgai (Tolosa) lurrarrendi auzoan etxe zoragarria. 2 solairu, 5 logela. Lorategia. Garaje itxia.
Salgai (Berastegi) Familia bakarreko etxebizitza 4.000m²ko lursailarekin. Ikuspegi zoragarriak.
Salgai (Anoeta) 78m²-ko pisua. 3 logela, sukalde osatua. Kanpoaldera. Ikuspegi argia. Terraza ederra eta eguzkitsua. Alizairuz hornitua.
Salgai (Tolosa) 50m². Atiko ederra estreinatzeko gutziz eraberritu ostean. 191.122 euro.
Salgai (Tolosa) Agintari kalean 1. go pisua. 70m². Estreinatzeko gutziz eraberritu ostean. Kalitate handiko materialekin egina.
943 69 71 96 • 675 705 268
Korreo Kalea 50

iragarki laburrak ▶

LANA

Harreragileak. Erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.
Gidariak. Erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

Elektrikariak. Elektrizitate enpresa batek langile autonomo edo kontratupekoak behar ditu. Obrak, industrietarako... Deitu 943 800 000 zenbakira.

TOLOSA ▶ KULTURA

Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdia abian jarri dute

Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatuta, bi saio egingo dituzte; horietako bat Tolosan izango da, martxoaren 31ean

ERREDAKZIOA

Euskal Kantuzaleen Elkarteak atzo aurkeztu zuen 2007ko Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdia. Ainhoa Ansa, Euskal Kantuzaleen Elkarteak idazkaria eta jaialdiaren koordinatzailea, eta Josu Txapartegi musika irakaslea aritu ziren jaialdiaren berri ematen. Aurten lehen aldiz egingo da ekitaldia, Nafarroako ereduari jarraituz, eta lehendik ezaguna zen Haur Kantari Txapelketaren nolabaiteko transformazioa da.

Ansak azaldu zuenez, «Gipuzkoako irakasleen artean Jaialdiaren aldeko eskaera nabaritu dugu eta horregatik, aurten proba egitea pentsatuta abiatu gara. Honekin txapelketak eragin dezakeen tentsioa eta urduritasuna gutxitu nahiko genituzke, eta haurrek eroso eta gustura, jai giroan kanta dezaten lagundu. Oraingoz harriera ona izaten ari dela uste dugu, baina hori, hemendik aurrera ikusiko dugu hobekien». Bi saio egingo dira. Bata, Azkoitian, martxoaren 17an, eta bestea Tolosan, martxoaren 31an. Biak 17:00etan izango dira.

Kantuarrekin gozatzea

Jaialdiaren antolatzaileek azaldu zuten, «batez ere lortu nahi duguna haurrek kantuarrekin gozatzea da». Gozatuz gero, «erraz barneratuko dute euskal kantutegian dugun errepertorio aberatsa, eta kantuarrekiko eta gure hizkuntzarako gertutasuna nabaritze-



Ainhoa Ansa eta Josu Txapartegi, atzoko aurkezpenaren une batean, jaialdiaren kartela eskuetan dutela. ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS

ra helduko dira» pentsatzen dute. Bestalde, euskal kantua heziketarako «ezinbesteko tresna» moduan erabil daitekeela erakutsi nahi dute eta musika-gela barruan egiten den lanari jende aurreko edo eszenatokiko aukera eman nahi diote, ikasitakoa gela barruan gera ez dadin.

Jaialdiaren gehienez 15 urte dituzten haur eta gaztetxoek hartu dezakete parte. Ohiturari jarraiki, hiru sailetan banatuko

dira parte-hartzaileak: banaka, binaka eta hirutik gorako abeslari kopurua dutenean, taldeka. Instrumentu laguntza eraman ahal izango dute eta a capella ere abestu ahaliko dute. Izena emateko epea zabalik dago martxoaren 9ra arte. Interesatuak 943 593302 zenbakira deitu edo posta@kantuzale.net helbidera idatzi dezakete. Jaialdiaren parte hartzen duten guztiak oroigarriak jasoko dituzte.

LEITZA ▶ HERRI KIROLAK

Rekondok finalerdia du zain etzi, Amazabalen

Inaxio Perurena 285 kiloko harria igotzen saiatuko da bi eskuekin, bihar, Sei Orduetan

ERREDAKZIOA

Jon Rekondo leitzarrak, Ander Erasunekin batera, Urrezko Aizkolari Gaztearen Binakako Txapelketaren finalerdia jokatuko du etzi Leitzako Amazabal pilotalekuan. Mutrikuko Mugertza anaiak izango dituzte aurkari. Irabaziz gero, Azpeitian jokatuko dute finala, hilaren 24ean.

Faborito bezala Mugertza anaiak aterako dira, lazko txapelkunak baitira. Halere, Rekondoren eta Erasunen ingurukoak ziur daude bi aizkolari nafarrek irabazi egingo dutela. Beraz, ikusmin handia sortu du etziko finalerdiak aizkorazaleen artean.

Aitaren arrastoari jarraituz

Inaxio Perurena harrijasotzaile leitzarrak marka berri bat jartzeko saiatuko da bihar Do-

nostian egingo duten Euskadiko Sei Orduak ekitaldian. Kirolari leitzarrak bi eskuekin 285 kilo jasotzen saiatuko da, aurretik zuen marka bost kilotan hobetzeko asmoz. Ekitaldia 15:00etan hasten bada ere, Perurenak bere saioa 19:45ean abiatuko du.

Leitzarrak Tolosako Beotibar pilotalekuan ezarri zuen bere azken marka pertsonala bi eskuekin, 2005eko azaroaren 20an. Urte bete baino gehiago igaro da, beraz, horrelako saiakerarik egin gabe. Perurena familiarentzat Euskadiko Sei Orduak oso garrantzitsuak dira, bertan egin ohi zituelako Iñaki Perurenak bere markak. Hain zuzen, dagoeneko 25 urte bete dira Iñaki Perurenak lehen aldiz 300 kiloko harria altxatu zuela kirol ekitaldi horretan. Orain, ikusi beharko semeak bere arrastoa jarraitzen duen.

IBARRA ▶

Elkarretaratze isila De Juana gogoan

Bi iritzi artikuluetatik Iñaki de Juanari «inposaturiko kondena bidegabea» salatu amoz, elkarretatze ixila deitu dute ostiralero, 19:30ean, Ibarraren sarreran. Antolatzaileek ibartar guztiak gonbidatzen dituzte parte hartzera.

BERASTEGI ▶

Odola emateko aukera eskolan, astelehenean

Berastegiko odol emaleen elkarteak deia luzatu du astelehenean, hilak 19, odola emateko. Herriko eskolan izango da horretarako aukera, 18:00etatik aurrera.

BERROBI ▶

Podologorako izena emateko, hilaren 21ra arte

Hilabete honetako podologo zerbitzua hilaren 26an izango da, 15:30etik aurrera. Zerbitzu hori jaso nahi duenak izena eman behar du hilaren 21a baino lehen udaletxean.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo



ARGITARATZAILERA. Tolosa Herria Hedabideak S.L.
LEGE GORDAILUA. SS-0398-03
ZUZENDARIA. Noelia Lataburu
EGOITZA NAGUSIA. Araba etorbidea 5, atzea, Tolosa
TELEFONOA. 943 65 56 95 FAXA. 943 65 00 18
LEITZA. Herriko plaza 1. 687 410 118
E-POSTA. tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
WEBGUNEA. www.tolosaldeko hitza.info

TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.KO KIDEAK:



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko
77 gizarte eragile

HITZA-K BAI EUSKARARI



Zuzendariordea. Iñigo Terradillos. Kudeatzailea. Jon Mujika. Publizitateak. 661 678818. tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa. 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldeko hitza.info. Villabona-Aizt. 687 410022. villabona-aizt@tolosaldeko hitza.info.
Añoeta. 687 410022. anoeta@tolosaldeko hitza.info. Ibarra. 687 410032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea. 687 410034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info. Leitzalde. 687 410118. leitzalde@tolosaldeko hitza.info.

'HITZA' LAGUNTZEN UDALAK: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketeta, Añoeta, Areso, Asteasu, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Leiza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zuzurkil



GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzerna

10

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

902 82 02 01

ZIRI-ZIRI ▶ JOXEMI SAIZAR

Labeldun festa mundiala

Ez dago horrelakorik mundu osoan. Ez Rio de Janeiron, ez Lantzen, ez Tenerifen, ez Venezian, ez Iturenen, ez Cadizen...

Zazpi etapako Tour luze eta gogorra hasi da txupinazoarekin. Baina txupinazo ofiziala baino lehen Vista Alegrekoena izan zen heneregun gauerdian —puntuiliterik handiena duen egitarauko ekitaldia— eta ikastetxeetako jaialdiak atzo goizenan, bai, guraso eta senideek minutu gutxitan makina bat ordutako lana bideo edo argazki kamarekin jaso nahi duten lan hori. Harrobia ere hor lantzen da, ez bakarrik Astele nitako aisialdi taldeen konpartsetan. Hori da hori festa eta dantzarako gogoa!

Jubilatuentzako Disneylandia Abastos plazan, diskojaiak Uzturren, Ernion eta beste hainbat tokitan, txuleta pintxoak Alboradan, zerga bereziak Solana kaleko bizilagunentzat... agindu ditu Ostegun Gizeneko korporazioak. Zain egon beharko dugu ea betetzen diren. Agian ohiko alderdiek baino boto gehiago jasoko dituzte maiatzean, datozen udal hauteskundeetan.

Zenbat jende zegoen eguerdian plaza Zaharrean? Ehundaka? Mila? Bost mila? Sari bat emango diogu asmatzen duenari. Martxa honetan zabaldun egin beharko dute plaza. Han ere kamara eta mikrofono festa izan da balkoietan eta kalean.

Esandakoa. Esportatzeko moduko festak ditugu. Umorea, giroa, orijinaltasuna, sormena, partaidetza... Dena daukagu. Eguraldiak ere laguntzen du, pentsa!

Babarruna eta txuletarekin egiten duten azokak bezala —Aste Santuan arraultzaren azoka egin behar dutela egia al da edo adar jotzea?— Inauterietan ere kongreso mundiala edo master bat egiteko moduan gaude Tolosan. Irakasleak ez dira faltako!

GORA ETA BEHERA ▶ ERREDAKZIOA

Jendearen parte-hartzea beharrezkoa

Txupinazoarekin lehertu zen jaia atzo. Otsailaren 15a, beraz, historiaren parte izatera pasako da, 2007ko inauterien hasiera bezala, hain zuzen Haatik, egun hau egun bat besterik ez litzateke izango, tolosar eta kanpotar guztiei esker izango balitz, behintzat. Bai, inauteriak jai erraldoi bat izatea posible egiten duen jende horri guztiari esker. Gure Gora, beraz, inauterien lehen eguna igaro den honetan, zuentzat guztiontzat da: Txarangetan dantzari aritzen zaretenontzat, ekimenetan parte hartzen duzuenontzat, konfetiak botatzen dituzuenontzat eta inauteriak bihotzetik bizitzen dituzuenontzat. N. GARZIA



AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
14 urte
eta oraindik hain bikia?
J.J. ...



ZORIONAK
Izaren Urdangarin.
14 muxu
etxekoan partetik.



URTE ASKOAN
Aimar (Izaskun auzoa, Ibarra). Gaur 14 urte. Zorionak majoi! Etxekoan partetik.



gure etxean
euskara
gure etxean
berria

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoan baino %10 merkeago.
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat opariak: zozketak eta kupoiak astero, eta urte osoan erabilizko hainbat deskontu.
4. Promozioetan abantailak: BERRIAk ateratzen dituen liburak, diskoak eta abar merkeago.

Orain eskaintza berezia
Otsailaren 28a baino lehen harpidedun* gero,
oparia zuretzat

2 LAGUNENTZAKO BAZKARI EDO AFARIA
zuk aukeratzeko duzun
hauetako sagardotegi batean

GIPUZKOA LARRE GAIN ☎ 943 551 896 HEMENDI	GIPUZKOA OTSUA-ENEA ☎ 943 956 894 HEMENDI	BIZKAYA IBARRA ☎ 946 731 100 ZORROTTZA
ARABA ITURRIETA ☎ 945 445 385 ARABAN	NAFARRA MARTITXONEA ☎ 948 604 607 ALDIZ	

Deitu ORAIN!! 943 30 43 45

*Urte osoan eguneroko harpidedun izan behar du

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**